



5/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 18(e)koa, Barakaldo Sestaoko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barakaldo Sestaoko ESiko Neumologiako Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Barakaldo Sestaoko ESiko zuzendari gerentearen ekainaren 9ko 235/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Barakaldo Sestaoko ESiko Neumologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021ko irailaren 28(e)ko EHAA.194.zk. eta 2021ko urriaren 5(e)ko BOE. 238.zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021ko urriaren 27(a)n amaitu zen.

Barakaldo Sestaoko ESiko zuzendari gerentearen azaroaren 18ko 326/2021 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barakaldo Sestaoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,



EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Neumologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldon 2022ko urtarrilaren 18(a)

Barakaldo-Sestaoko ESIaren zuzendari gerentea,
JOSEBA JULEN BALLESTERO ZARRAGA.

BARAKALDO-SESTAOKO ESI
ZUZENDARI GERENTEA
DIREKTOR GERENTE
Dr. Joseba Julen Ballestero Zarraga



I. ERANSKINA

**BARAKALDO SESTAO ESIKO NEUMOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA
IZENeko LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin-betiko zerrenda:

Jesus Camino Buey

Baztertuak:

Ez dago

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.



II. ERANSKINA

**BARAKALDO SESTAO ESIKO NEUMOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA
IZENENKO LANPOSTUA**

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Maria Lourdes Vivanco Gómez and.

Ordezkoa: Joseba Julen Ballestero Zárraga jn.

Lehenengo batzordekidea

Titular: D^a Ana Jesús Bustinduy Bascaran and.

Suplente: D^a Ainhoa Epalza Bueno and.

Bigarren batzordekidea

Titularra: Juan Ignacio Arriaga Lariz jn.

Ordezkoa: Jose Miguel Antonio Tirapu Puyal jn.

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Maria Milagros Iriberry Pascual and.

Ordezkoa: Jose Luis Lobo Beristain jn.

Laugarren batzordekidea

Titularra: Francisco Javier Garros Garay jn.

Ordezkoa: Pedro Maria Ansola Zubiaurre jn

Idazkaria

Titularra: Karmele Iglesia Rosende and.

Ordezkoa: Miren Idoia Sagarminaga Uriarte and.